

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3478

1672/2024 EBAZPENA, uztailaren 3koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María Carmen Ayestaran Vega andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako (Hausturetako Atala) Atal Sanitarioko Buru, aldi baterako eta lau urte luzagarri.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentearen otsailaren 13ko 348/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako (Hausturetako Atala) Atal Sanitarioko Buru lanpostua betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez. (2024ko martxoaren 5eko EHAA, 47 zk. eta 2024ko martxoaren 19ko BOE, 69 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, María Carmen Ayestaran Vega andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako (Hausturetako Atala) Atal Sanitarioko Buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikularen hirugarren arau komunarekin, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– María Carmen Ayestaran Vega andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako (Hausturetako Atala) Atal Sanitarioko Buru, aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikularen hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2024ko uztailaren 8a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, baldin eta ez bada jazotzen luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat, betiere Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikularen 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunei eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

2024ko uztailaren 17a, asteazkena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2024ko uztailaren 3a.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko zuzendari-gerentea,
MARÍA LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.